



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko otsailaren 14a

17. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—San Adriango Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **San Adriango Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak San Adriango Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **San Adriango Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

I. Sarrera (3. or.).

II. Iritzia (5. or.).

II.1. 2016ko kontu orokorrari buruzko auditoria finantzarioko iritzia (6. or.).

II.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (6. or.).

III. Udalaren 2016ko Kontu Orokor Bateratuaren laburpena (7. or.).

III.1. 2016ko aurrekontu bateratuaren beteazpenaren egoera-orria (7. or.).

III.2. 2016ko aurrekontu-emaitza bateratua (8. or.).

III.3. Diruzaintzako gerakin bateratua 2016ko abenduaren 31n (8. or.).

III.4. 2016ko abenduaren 31ko egoerabalentze bateratua (9. or.).

III.5. 2016ko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontu bateratua (10. or.).

IV. Iruzkina, oharra eta gomendioak (11. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2016ko abenduaren 31n (11. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (13. or.).

IV.3. Alderdi orokorrak (15. or.).

IV.4. Udaleko langile-gastuak (16. or.).

IV.5. Udalaren ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastua (18. or.).

IV.6. Udalaren transferentzia arruntengatiko gastuak (19. or.).

IV.7. Udalaren inbertsioak (20. or.).

IV.8. Udalaren aurrekontuko diru-sarrerak (21. or.).

IV.9. Musika Eskola (25. or.).

IV.10. Radio San Adrián (27. or.).

Eranskina. Udalaren 2016ko kontu orokorraren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

## I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako jarduketa-programari jarraituz, San Adriango Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du. Honako hauek osatuta dago kontu hori, funtsean: aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak, aurrekontu-emaizta, diruzaintzako gerakina, egoeraren balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Kontu orokorraren finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

San Adriango Udalari 2016ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Halaber, nabarmendu behar dugu 2016ko aurrekontua aurkezten dela Nafarroako Gobernuak irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuen toki entitateen aurrekontu-egitura berriari jarraituz.

San Adriango Udalak, 2016ko urtarrilaren 1ean, 6.225 biztanle zituen.

Kudeaketarako, Udalak bi erakunde autonomo sortu ditu –Musika Eskola eta Radio San Adrián–, eta zenbateko adierazgarri hauek zituen 2016ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2016-12-31n
Udala	4.603.494	5.068.711	45
Musika eskola	187.591	187.591	15
Radio San Adrián	0	0	0

Radio San Adrián erakunde autonomoak ez du aurrekontu-zuzkidurarik, ez langilerik ere, eta ez du, berez, inongo jarduerarik.

Udalak Musika Eskolari 87.441 euroko ekarpena egin dio, guztira, 2016an.

Udalak ondoko mankomunitateetan hartzen du parte:

- Goi Erriberako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, hiri-hondakinen kudeaketarako eta tratamendurako.
- Azagra, Andosilla, Carcar eta San Adriango Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, oinarrizko gizarte zerbitzuak emateko.
- Jurramendiko Mankomunitatea, uraren ziklo integralaren zerbitzua emateko.

Oro har, mankomunitatean dituen zerbitzu hauek 176.446 euroko gastua eragin diote Udalari. Hona hemen xehetasunak:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2016an
Goi Erriberako Mankomunitatea.	3.195
Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	114.634
Jurramendiko Mankomunitatea	29.452

Gainera, 2016an, Udalak, 29.165 euroko hirugarren eta azken ordainketa egin du, Jurramendiko Mankomunitatearen funts sozialaren ekarpena dela eta, haren ur-zerbitzuan integratzeko.

Ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte zerbitzua			X	
Musika eskola		X		
Hirigintza				X
Udaltzaingoa	X			
Lorategiak	X			
Hiri hondakinak			X	
Uraren ziklo integrala			X	
Argiteria publikoa				X
Kaleen eta Bideen mantentze-lanak	X			
Kirolak (instalazioen kudeaketa)				X
Kirol jardueren kudeaketa	X			
Kultura	X			
Diru-bilketa exekutiboa				X
Gazteria				X
Haur eskola	X			
Liburutegia	X			
Hilerria				X

Entitatearen 2016ko aurrekontu bateratua 2015eko abenduaren 1eko Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2016ko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean ekitaldi horretarako Udalaren egoera-orri bateratu garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, zenbait ohar eta ondorio jaso ditugu (honako gai hauei buruzkoak: egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta kudeaketaren beste alderdi garrantzitsu batzuk), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorren oroitidazkiarekin.

Landa-lana 2017ko irailean egin zuen auditoriaren arloko enpresa kontratatu batek, Kontuen Ganberako auditore baten ikuskatzearen eta zuzendaritzaren pean. Era berean, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Jarduketa honen emaitzak San Adriango Udaleko alkateari azaldu zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epea iraganda, ez dute alegaziorik aurkeztu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu San Adriango Udaleko eta haren musika eskolako langileei.

## II. IRITZIA

San Adriango Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

### *UDALAREN ERANTZUKIZUNA*

Udalaren kontu-hartzailletza da kontu orokorra egin eta aurkezteko ardua duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko kontu orokorra 2017ko ekainaren 19an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

### *NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2016ko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolen erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarriko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorrean arrazoizko segurtasun bat lortzea eta hartan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko kontu orokorretan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia emateko.

## II.1. 2016ko KONTU OROKORRARI BURUZKO AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

### *AUDITORIA FINANTZARIOAREN IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN*

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, oraindik eguneratu gabe dago eta ez ditu jasotzen Udalaren ondasun eta eskubide guztiak; hartara, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatzea; saldo horrek 21,5 milioi euro gutxiago ditu 2016ko abenduaren 31ko balantzean.

### *AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA*

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenarekin" paragrafoan norainokoa dela-eta deskribatutako mugaren balizko eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

### *AZPIMARRA EGITEKO PARAGRAFOA*

Finantzen auditoriari buruzko gure iritzian eragin gabe bada ere, honako alderdi hau nabarmendu nahi dugu:

2002an udalaren kirol-instalazioen multzo berri bat eraikitzeko proiektuak ukitutako lursailen nahitaezko desjabetze-prozesua hasi zen; hala ere, 2005ean, Udalak erabaki zuen kirol azpiegitura hori tokiz aldatzea. Desjabetze horrek 1.339.655 euroko guztizko gastua eragin dio Udalari; 2016ko abenduaren 31n, 43.168 euro daude ordaintzeko oraindik ere.

Ez dago jasota Udalak aurreikuspenik duenik lursail horiei eman beharreko erabilerari edo xedeari buruz.

## II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

### *BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN*

- Alkatetzaren baimenaren bitartez, Udalak urtero udal langile jakin batzuei –14 langileri 2016an– ordainsari-kontzeptu bat ordaintzen die "uztaileko jaietako pizgarriak" direla eta. 2016an guztira 22.407 euro izan dira, gehi entitatearen kargura den Gizarte Segurantzaren kasuko gastua. Kontzeptu hori ez dago jasota udal enplegatuen ordainsariei buruzko araudian, eta Udaleko kontu-hartzailearen eragozpen-ohar bat eragin du.

- Guztira 231.490 euro egiten duten horniduren eta laguntzen prestazioak detektatu dira –2. kapituluaren ehuneko 16–, zeinak ez baitaude babestuta dagokien kontratazio-prozeduran; izan ere, errepikakorrak direlako eta beren zenbatekoa dela-eta halako prozedura bat izapidetu behar zen haiek ordaintzeko. Egoera horrek Udaleko kontu-hartzaileak txosten bat egitea eragin du.

### *LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA*

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako ez-betetzeen eraginengatik ez bada, Udalaren 2016ko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta Udalaren egoera-orri finantzarioetan azaldutako informazioa bat datoz, garrantziko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

**III. UDALAREN 2016ko KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**

Ondoren, 2016ko kontabilitatearen egoera-orri bateratu (Udala gehi erakunde autonomoak) garrantzitsuenak azaltzen ditugu.

**III.1. 2016ko AURREKONTU BATERATUAREN BETEARAZPENAREN EGOERA-ORRIA****Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketa (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	2.323.633	-6.612	2.317.021	2.103.632	91	2.067.046	98	36.586
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	1.617.835	18.467	1.636.302	1.471.476	90	1.325.717	90	145.759
3. Finantza-gastuak	48.550	-300	48.250	41.573	86	41.573	100	0
4. Transferentzia arruntak	359.304	-2.000	357.304	341.999	96	307.192	90	34.807
5. Kontingentzietarako eta ezusteetarako funtsa	15.000	-9.999	5.001	0	0	0		0
6. Inbertsio errealak	368.210	69.955	438.165	395.876	90	262.629	66	133.247
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0		0		0
8. Finantza-aktiboak	0	2.779	2.779	0	0	0		0
9. Finantza-pasiboak	348.908	300	349.208	349.088	100	349.088	100	0
<b>Guztira</b>	<b>5.081.440</b>	<b>72.590</b>	<b>5.154.030</b>	<b>4.703.644</b>	<b>91</b>	<b>4.353.245</b>	<b>93</b>	<b>350.399</b>

**Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantza (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	1.987.000	0	1.987.000	1.947.346	98	1.834.505	94	112.841
2. Zeharkako zergak	190.000	0	190.000	358.822	189	345.356	96	13.466
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	646.832	0	646.832	626.935	97	597.953	95	28.982
4. Transferentzia arruntak	2.185.649	0	2.185.649	2.174.847	100	2.064.947	95	109.900
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	55.960	0	55.960	43.937	79	40.860	93	3.077
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0		0		0
7. Kapital-transferentziak	16.000	0	16.000	16.974	106	5.727	34	11.247
8. Finantza-aktiboak	0	72.589	72.589	0	0	0		0
9. Finantza-pasiboak	0		0	0		0		0
<b>Guztira</b>	<b>5.081.441</b>	<b>72.589</b>	<b>5.154.030</b>	<b>5.168.861</b>	<b>100</b>	<b>4.889.348</b>	<b>95</b>	<b>279.513</b>

## III.2. 2016ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	5.100.221	5.168.861
- Aitortutako betebeharrak	5.229.148	4.703.644
<b>Aurrekontu-emaitza</b>	<b>-128.927</b>	<b>465.217</b>
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	12.183	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	550.762	72.589
<b>Aurrekontu-emaitza doitua</b>	<b>409.652</b>	<b>537.806</b>

## III.3. DIRUZAINZAKO GERAKIN BATERATUA 2016ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	433.997	370.386
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	350.751	279.513
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	749.764	818.773
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	38.361	38.539
(-) Ordainketen itzulketak	504	120
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-703.342	-764.518
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-2.041	-2.041
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	352.655	509.614
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	182.673	350.399
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	25.824	25.841
(+) Diru-sarreraren itzulketak	205	0
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-914	-914
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	145.072	134.288
(+) Diruzaintzako funts likidoak	770.524	1.396.342
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>	<b>851.866</b>	<b>1.256.909</b>
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	72.589	
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	0	0
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina</b>	<b>779.277</b>	<b>1.256.909</b>

\*2015. urteari buruzko datuetan, kalkulu-akats bat dago, zeren eta ez baita gehitu "Diru-sarreraren itzulketak" partida, 205 euro giten duena. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren saldo zuzena 779.072 eurokoa da.



## III.4. 2016ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

## Aktiboa

Deskribapena	2015	2016
A Ibilgetua	21.096.675	21.492.551
1 Ibilgetu materiala	19.235.883	19.338.956
2 Ibilgetu ez-materiala	213.621	222.681
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	720.572	1.004.315
4 Herri-ondasunak	926.600	926.600
5 Finantza-ibilgetua	0	0
C Zirkulatuzailea	1.961.244	2.583.048
8 Zordunak	1.189.806	1.185.792
9 Finantza-kontuak	771.438	1.397.256
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	0
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>24.350.362</b>	<b>25.132.931</b>
Oroipen-kontuak	1.292.443	1.057.332

## Pasiboa

Deskribapena	2015	2016
A Funts berekiak	18.041.855	19.252.713
1 Ondarea eta erreserbak	5.318.160	6.271.048
2 Ekitaldiko emaitzak	952.501	1.193.497
3 Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11.771.194	11.788.168
C Epe luzeko hartzekodunak	4.610.371	4.261.283
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	4.610.371	4.261.283
D Epe laburreko zorrak	405.693	561.602
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	403.652	559.561
6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	2.041	2.041
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>24.350.362</b>	<b>25.132.931</b>
Oroipen-kontuak	1.292.443	1.057.332

## III.5. 2016ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTU BATERATUA

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2015	2016	Hartzeko	2015	2016
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Amaierako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	3 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	10.331	7 Salmentak	296.812	534.984
61 Langile-gastuak	2.250.087	2.107.795	7 Ondasunaren eta enpresaren errenta	361.771	93.203
62 Finantza-gastuak	51.728	41.573	7 Produzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.644.504	1.809.986
63 Tributuak	600	661	7 Errentaren gaineko zerga arruntak	391.313	395.598
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.433.885	1.456.321			
65 Gizarte prestazioak	3.367	0	7 Ustiapenerako diru-laguntzak	78.022	5.430
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	7 Transferentzia arruntak	2.192.753	2.249.359
67 Transferentzia arruntak	409.775	429.440	7 Kapitalaren gaineko zergak	92.776	100.584
68 Kapital-transferentziak		0	7 Bestelako diru-sarrerak	45.525	50.184
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak		0	7 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
80 Ekitaldiaren emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	954.035	1.193.206	Ekitaldiaren emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
<b>Guztira</b>	<b>5.103.477</b>	<b>5.239.327</b>	<b>Guztira</b>	<b>5.103.477</b>	<b>5.239.327</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia	Deskribapena	2015eko ekitaldia	2016ko ekitaldia
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	954.035	1.193.206
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	-387
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	0	0	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	-1.534	678
89 Etekin garbia guztira	952.501	1.193.497	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)		
<b>Guztira</b>	<b>952.501</b>	<b>1.193.497</b>	<b>Guztira</b>	<b>952.501</b>	<b>1.193.497</b>

#### IV. IRUZKINAK, OHARRAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere. Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

Halaber, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

##### IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2016ko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 5,08 milioi euroko gastuak eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori hasierako kopuruetatik 72.589 euro handitu da, hau da, ehuneko bat, aurrekontu aldaketan bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 5,15 milioi eurokoak dira. Aldaketa horiek, funtsean, diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako inbertsio errealetan dute eragina. Hiru aurrekontu-aldaketa berrikusi dira, eta ondorioztatu da zuzen izapidetu direla.

Aitortutako betebeharrak 4,70 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 91ko betetze-maila izan dute.

Aitortutako eskubideek 5,17 milioi euro egiten dute, ehuneko 100eko betetze-mailarekin.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	45	Tributu bidezko diru-sarrerak	57
Bestelako gastu arruntak	39	Transferentziak	42
Inbertsioak	8	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	1
Finantza-zama	8	Zorduntzea	0
	100		100

Hau da, funtzionamendu-gastuek guztizko gastuaren ehuneko 84 azaltzen dute eta finantza-zamak (interesak gehi amortizazioak), berriz, ehuneko 8. Diru-sarreretan, iturri nagusia tributu-izaerakoak dira, ehuneko 57 baitira.

Udalaren 2016rako aurrekontu bateratuaren betetzeak eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketak honako adierazle eta magnitude hauek erakusten dituzte:

Adierazleak eta magnitudeak	2015 <sup>(1)</sup>	2016	2016/2015 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak, guztira	5.229.148	4.703.644	-10
Aitortutako eskubideak, guztira	5.100.221	5.168.861	1
Gastuen betetzea (%)	93	91	
Diru-sarreraren betetzea (%)	91	100	
Gastu arruntak	4.071.420	3.958.680	-3
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	4.019.692	3.917.107	-3
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	793.857	395.876	-50
Finantza-eragiketen gastuak (9)	363.872	349.088	-4
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	5.013.271	5.151.886	3
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	2.775.482	2.933.103	6
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	86.949	16.974	-80
Tributu bidezko diru-sarrerak gastu arrunten gainean (%)	68	74	
Gastu arrunta biztanleko	657	636	-3
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	448	471	5
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	45	42	
Aurrezki gordina	993.579	1.234.779	24
Finantza-zama	415.599	390.660	-6
Aurrezki garbia	577.980	844.118	46
Aurrekontu-emaiza doitua	409.651	537.806	31
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	234.944	814.304	247
Diruzaintzako gerakina, guztira	851.865	1.256.909	48
Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina	779.277	1.256.909	61
Finantza-zamaren adierazlea <sup>(2)</sup>	8	8	
Aurrezki gordina / Diru-sarrera arruntak (%) <sup>(2)</sup>	20	24	
Zorpetze-ahalmena (%)	12	16	
Zor bizia	4.610.371	4.261.283	-8
Zorpetze-maila <sup>(2)</sup>	92	83	
Zor bizia biztanleko	744	685	-8

(1) Auditatu gabeko ekitaldia

(2) Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak.

2016an, Udalak ehuneko hamar gutxiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldi-koak baino ehuneko bat handiagoak izan dira.

Gastuen gutxitze horren arrazoia da gastu arruntak –ehuneko hiru– eta kapitaleko gastuak –ehuneko 50– jaitسي izana.

Tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko sei egin dute gora, eta diru-sarrera arrunten multzoa ere ehuneko hiru handitu da. Kapital bidezko diru-sarrerak ehuneko 80 jaitسي dira.

2016an, diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino handiagoak dira.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 0,81 milioi eurokoa da eta ehuneko 247 egin du gora 2015ekoarekiko; aurrekontu-emaiza doitua 0.54 milioikoa da, ehuneko 31 handiagoa aurreko ekitaldikoa baino.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak ere nabarmen egin du gora: 0,78 milioitik 1,26 milioira.

Aurrezki gordina, 2016an, 1,23 milioi eurokoa izan da, eta 24 handitu da; finantza-zama, be-rriz, ehuneko sei gutxitu da. Horrenbestez, aurrezki garbian igoera nabarmen bat gertatzen da, zeren eta 577.980 eurokoa izatetik 844.118 eurokoa izatera pasatzen baita.

Finantza-zamaren adierazlea<sup>1</sup> ehuneko zortzi da 2016an (2015eko portzentaje bera), eta aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten<sup>2</sup> ehuneko 24 egiten du (ehuneko 20 izan zen 2015ean).

Zor bizia ehuneko zortzi jaitsi da, eta 2016an 4,26 milioikoa izatera iritsi da; halaber, zorpetze-maila jaitsi da<sup>3</sup>, ehuneko 92koa izatetik ehuneko 83koa izatera, eta gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 110ko legezko tasaren azpitik dago. Biztanle bakoitzeko zorra 685 eurokoa da 2016an (744 euro 2015ean).

Horrenbestez, laburpen gisa, San Adriango Udalak 2016ko abenduaren 31n finantza-egoera saneatua du; haren ezaugarria da 1,26 milioi euroko diruzaintzako gerakina duela gastu orokorretarako, 0,84 milioiko aurrezki garbia eta 4,23 milioiko zor-bolumena. Finantza-egoeraren hobetzea neurri handi batean zor zaie gastuei eusteko neurriei, azken urteetan aurrera eramandakoei; neurri horiek finantza-orekari eustera bideratu dira.

#### IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, Udalak honako arau fiskal hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalako terminoetan neurtua.
- Gastu-arauak –hau da, Udalaren 2016ko gastu zenbakarriaren eta 2015eko gastuaren artean dagoen aldeak– ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,8an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du Udalaren zorrak, kontabilitate nazionalako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarrera arrunten ehuneko 110a.
- Merkataritza-zorraren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.

Egindako azterketatik honako hauek azpimarratuko ditugu:

**Aurrekontu-egonkortasunaren araua.** Udalak, bere kalkuluen arabera, 2016an arau hori bete du, zeren eta gaitasuna lortu baitu 0,76 milioi finantzatzeko, ondoren azaltzen den bezala:

Kontzeptua	2016
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	814.304
Diru-bilketa zalantzarria duten diru-sarrerengatiko doikuntzak	-51.043
<b>Finantzaketa-ahalmena</b>	<b>1.526.522</b>

Bestalde, aurreko kalkuluak berrikusita, ikusi dugu doikuntzan ez direla aintzat hartu itxitako ekitaldietako kobrantzak; izan ere, haiek kontuan hartuta, diru-bilketa ez-seguruen bidezko guztizko doikuntza negatiboa 13.986 eurokoa izanen litzateke, eta, horrenbestez, finantzatutako gaitasun handiagoa izanen luke, 800.318 eurokoa.

<sup>1</sup> Lehen, “zorpetze-maila” deitzen zitzaien, eta finantza-zamak diru-sarrera arruntetan egiten duen ehuneko da.

<sup>2</sup> Lehen, “zorpetze-muga” esaten zitzaien.

<sup>3</sup> Lehen, “zor biziak diru-sarrera arruntetan egiten duen ehuneko” esaten zitzaien.

**Gastuaren araua.** 2016ko gastu zenbakarria 2015eko ekitaldikoa baino 55.545 euro handiagoa da; zenbateko horrek ehuneko 1,8ko hazkunde-tasa gainditzen du, honako taula honetan ikusten den bezala:

Kontzeptua	2015	2016
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	4.865.277	4.354.556
Zorpetze-interesengatiko doikuntzak	-51.728	-41.573
Funts finalistekin finantzatutako gastuengatiko doikuntzak	-805.534	-737.955
Ikuspuntu finantzariotik jasagarriak diren inbertsioak	-550.762	
Oinarri-urtearen gastu zenbakarria	3.457.253	3.575.028
BPGaren erreferentziako tasa	1,018	
<b>2016rako gehieneko gastu zenbakarria</b>	<b>3.519.483</b>	

Ez-betetze hori koiunturazkoa da, eta gertatzen da aurreko urteetan lursailen desjabetzeak direla-eta egindako gastuarekin lotutako aurrekontu-aldaketa baten ondorioz; izan ere, baliabide atxikien ondoriozko diruzaintzako gerakinaren finantzatu zen zati batean. Egoera hori zuzendu egin da, egonkortasunari buruzko araudiarekin bat, zeren eta 2017ko aurrekontua orekarekin onetsi baita.

**Finantza-iraunkortasunaren araua.** 2016ko abenduaren 31ko zor bizia 4.261.283 eurokoa da, eta ekitaldiko diru-sarrera arrunten ehuneko 83 egiten du; portzentaje hori araudiak ezartzen duen ehuneko 110eko mugatik beherakoa da.

**Hornitzaileei ordaintzeko epea.** Adierazle horren batez besteko balioa honako hau izan da 2016an:

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	2016
Lehenengo hiruhilekoa	25,08
Bigarren hiruhilekoa	26,60
Hirugarren hiruhilekoa	24,19
Laugarren hiruhilekoa	32,79

Udalak hiruhileko guztietan betetzen du merkataritza-eragiketen ordainketarako legezko epea, laugarrenean izan ezik (30 egun natural dira, faktura edo agiri baliokidea jasotzen denetik kontatuta).

Azkenik, aipatu beharra daukagu Udalak 2016ko hasierako aurrekontuan, zuzkitu egin zuela gastuen 5. kapitulua, "*Kontingentziarako Funtsa*", aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko araudian aurreikusitakoa, izaera diskrezionaleko beharrezanezi, hasieran aurreikusi gabekoei eta urtean zehar gerta daitezkeenei erantzun ahal izateko. Funts hori, zeina ez baita nahitaezkoa San Adriangoaren biztanleria-tamaina duen udal batentzat, hasiera batean 15.000 euroekin zuzkitu zen, eta haren kargura zenbait aurrekontu-aldaketa egin ziren, 9.999 euro egiten dutenak; horrekin, behin betiko kredituak 5.001 eurokoak dira.

## IV.3. ALDERDI OROKORRAK

- San Adrian Udalaren aurrekontu orokor bateratua, 2016ko ekitaldikoa, 2015eko azaroaren 25eko Osoko Bilkuran onetsi zen eta 2016ko urtarrilaren 26ko NAO-n argitaratu zen behin betiko eran.

- Udalaren inbentarioa 1995ekoa da, eta ez da gaurkotu. Alderdi hori salbuespen bat da fiskalizazio-txostenean.

2016an, Udalak Tracasa enpresa publikoa kontratatu zuen Udalaren ondasun higiezin eta ibilgailuen eta lurzorua udal ondarearen inbentario berri bat egiteko; lan horiek 2016ko urrian eta azaroan egin dira, hurrenez hurren. Inbentarioaren modulua ezarri ondoren, berrikuspen-lan bat egiten ari da, eta haren amaieran Osoko Bilkurak onetsiko du udal inbentarioa. Inbentarioko moduluen zenbatekoak ez datoz bat ibilgetuaren saldokoekin; hori dela eta, balio horiek homogeneizatu egin beharko lirateke; halaber, ikusi da Udalaren jabetzakoak diren zenbait higiezin eskritura publikoa egin gabe eta Jabetzaren Erregistroan inskribatu gabe daudela.

- 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratuak diru-bilketa egiteko dagoen eta Nilsari ordaintzeko dagoen saneamendu kanoneko kobratzeko eta ordaintzeko saldo batzuk ageri ditu (diru-sarreretan eta aurrekontuz kanpoko gastuetan), 49.052 euro egiten dutenak. Zenbateko hori Udalak uren zerbitzuko erabiltzaileei 1998tik 2013ra ordaintzeko igorritako tasei dagokie; 2013tik aurrera, zerbitzu hori Mankomunitatearen eskumenekoa izatera pasatu zen. Ordaintzeko dauden ordainagiri horiek guztiak agentzia exekutiboaren esku utzi ziren. Saldo horiek ez daude diruzaintzako gerakin bateratuan jasota ez kobratzeko dauden eskubide gisa, ez itxitako ekitaldietako ordaintzeko dauden betebeharrak gisa.

- Saneamendu-kanonaren aurreko zenbatekoarekin lotuta, balantzeak hartatik heldutako BE-Zarengatiko saldo zordunak erregistratzen ditu: 5.889 euro egiten dute. Halaber, aurreko ekitaldietako BEZaren aitortpen fiskaletatik heldutako beste saldo zordun batzuk islatzen dira, 3.565 euro egiten dutenak; zenbateko hori erregularizatu beharra dago Nafarroako Foru Ogasunak BEZa dela-eta egindako ikuskatzearen ondorioen arabera.

- Udalaren zor biziaren muga-eguneratzeen egutegia, banku-entitateekikoa, honako hau da 2016ko abenduaren 31n:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2017	349.628	8	8
2018	349.745	8	16
2019	349.862	8	25
2020	349.980	8	33
2021	268.853	6	39
2022	247.114	6	45
Gainerakoa	2.346.101	56	100
<b>Guztira</b>	<b>4.261.283</b>	<b>100</b>	

- Udaleko idazkariak honako gai edo kontingentzia hauei buruz informatu du:

a) Futbol zelaia erreformatzeko obrak. Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak epai bat eman du Udalaren erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtsioak ezesteko; horren bidez, San Adriango futbol zelaia erreformatzeko obran esku hartu zutenen erantzukizun solidarioa deklaratu du, hartan dauden akatsak eta akats horiei konponbidea emateko betebeharrak direla eta. Enpresa esleipen-hartzailearen aseguru-konpainiak 328.000 euroko kalte-ordain ekonomikoa emateko proposamena aurkeztu du. Udala konponketen kostua eta konponketa horiek azkenean nork egingen dituen aztertzen ari da.

b) Industrialde bateko lur-zati baten besterentzea: Udalak 2016an lur-zati horren salmenta-kontratua ebatzea onetsi zuen, eskuratzailerak ez baitzuen hura zela-eta industria-erabilerarik egiten. Hasierako salmenta-prezioaren ehuneko 80 eskaini zuen, salerosketa-kontratuan ezarri-

takoaren arabera. Eskurtaileak lur-zati horren prezioa dela-eta gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen Nafarroako Administrazio Auzitegian, hartan "obrak" eginak zituela alegatuta. Nafarroako Administrazio Auzitegiak errekurtsua baietsi zuen. Hori dela eta, 2017ko uztailean, Udalaren Osoko Bilkurak erabaki du administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztea Nafarroako Administrazio Auzitegiaren erabakiaren aurka.

Gure gomendioak:

- *Ondasunen udal inbentarioa dela eta, Osoko Bilkurak berrikuspena eta arazketa egiteko, kontabilitatearekin bateratzeko eta onespena emateko prozesua osatzea.*
- *Udalaren ondasun higiezin guztiak eskritura daitezzen eta Jabetzaren Erregistroan inskribatu daitezzen kudeatzea.*
- *BEZa duten eragiketak identifikatzea, emandako zerbitzuak fakturatuz eta haiei BEZa jarritz, eta behar diren deklarazioak epean aurkeztuz, zenbateko zuzenekin.*

#### IV.4. UDALEKO LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuek 1,92 milioi euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 90ekoa izan da. 2016an sortutako gastu guztien ehuneko 42 dira. 2015eko urtearen aldean, gastu hori ehuneko zazpi jaitsi da.

Hona kontuak banakatuta, 2015ekoekin alderatuta:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak		Aldearen ehunekoa
	2015	2016	
Goi-karguak	69.540	68.491	-2
Funtzionarioak	415.032	354.139	-15
Lan-kontratudun langileak	758.368	721.035	-5
Gizarte-zamak	831.430	781.099	-6
<b>Guztira</b>	<b>2.074.370</b>	<b>1.924.764</b>	<b>-7</b>

2016an gastua ehuneko zazpi jaitsi izanaren arrazoia da, funtsean, funtzionario batzuek erretiroa hartu dutela eta aldi baterako langileen kontratazioak gutxitu direla.

Osoko Bilkuraren 2007ko erabaki baten bidez, San Adriango Udala Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileen hitzarmen kolektiboari atxiki zitzaion.

2016ko plantilla organikoaren arabera, 45 lanpostu daude guztira; honako hau da haien araubide juridikoa:

Udalaren arloa-Plantilla	Lanpostuen kopurua	Lanpostu hutsen kopurua
Funtzionarioak	16	7
Lan-kontratupekoak	29	11
<b>Guztira</b>	<b>45</b>	<b>18</b>

Hau da, lanpostu hutsak plantillako lanpostu guztien ehuneko 40 dira.

2016ko abenduaren 31n, guztira 50 langile ari ziren lanean Udalean; hona hemen xehetasunak:

Langileak	Lanpostuen kopurua
Funtzionarioak	9
Administrazio-kontratudun langileak	4
Lan-kontratudun finakoak	15
Aldi baterako lan-kontratudunak	22
<b>Guztira</b>	<b>50</b>



Egin dugun lanetik honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Enplegatu finko baten eta aldi baterako kontratatutako bi langileren kontratazioa berrikusi dugu. Ondorioa da haiek zuzen izapidetu zirela. Aldi baterako kontratazioetarako, haien aparteko izaera justifikatu da, beharizan urgente eta geroraezinak estaltzeko baitira.

- Langile-gastuen lagin bat –bost langile– aztertuta, ondorioztatzen da, oro har, gastu horiek behar bezala kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanpostuetarako ezarritakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla.

- \$\$\$\$2016an, Alkatezaren baimena tarteko, Udaleko langileei (udal brigada, polizia eta kultur koordinatzailea: 14 pertsona guztira) 22.407 euro gehi enpresaren Gizarte Segurantzaren ordaindu zaizkie, “Uztaileko jaietako pizgarriak” kontzeptua dela eta. Kontzeptu hori, ordea, ez dago aplikatzeko den araudian. Kontu-hartzaileak horri buruzko eragozpen-ohar bat eman du, hitzarmen kolektiboan –lan-kontratupeko langileei buruz–, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan –langile funtzionarioei buruz– eta Nafarroako Poliziei buruzko 8/2007 Foru Legean –udaltzaiei buruz– ezarritakoa urratzen delakoan. 2016an, ordainsari horiek gastu arruntan eta zerbitzuen 2. kapituluan kontabilizatuta ageri dira; 2017an, ordainsari horiei eutsi zaie, baina kontu-hartzaileak beste eragozpen-ohar bat aurkeztu du. Langileen gastu orokor moduan kontabilizatu dira. Egoera horrek legezketasunaren arloko salbuespen bat eragin du fiskalizazio-txostenean.

- Udalak haiek aitortzeari eta ordaintzeari uko egin dienez, familia laguntzaren osagarria jasotzeko eskubidea zutela jo duten langileek demanda judizialak aurkeztu izan dituzte, eskubide hori eskatze aldera. Epaiak, kasu guztietan, langileen aldekoak izan dira, eta Udalak kasuko zenbatekoak ordaindu ditu. 2016an 6.453 euro ordaindu ditu lau langileren familia-laguntzarengatik osagarrien kontzeptuan (1.127 euro 2016ko familia-laguntzei dagozkie eta 5.326 euro, berriz, aurreko ekitaldietako laguntzei); 2017an, berriz, 7.056 euro ordaindu dira. Gaur den egunean, prozedura judizial guztiak amaituta daude.

- Aldi baterako langileei dagokienez, langile horien sartzea, funtsean, deialdi bidezko zerrenden arabera egiten da –bost urtez behin berritzen dira zerrendak–. Errelebo-kontratuak duten ordezkapenetarako, deialdi publikoa egiten da eta INEMek igorritako zerrenda erabiltzen da. 2016an, aldi baterako hiru kontratazio egin ziren Haur Eskolako hezitzaileak ordeztzeko, horretarako zerrendak erabiliz; zerrenda horien deialdirako iragarkia 2016an egin zen, hautaprobentz bidez Haur Eskolan gertatzen diren beharrak aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda bat osatzeko. Aldi baterako beste bi langile kontratatu ziren errelebo-kontratuarekin, aurre-erretiroen ondorioz, INEMen bitartez.

Langile batzuek 1994tik daukate aldi baterako lan-harremana, eta hutsik dauden lanpostuak betetzen dituzte. 2004an, kirol koordinatzailea kontratatu zen sei hilabeterako. Geroztik, ez da bestelako kontraturik sinatu, egiazki Udalean lan egiten jarraitzen duen arren.

- Zenbait langileren kasuan plantilla organikoan erakusten diren antzinatasun datak ez dira zuzenak, eta ez da informaziorik ematen jakiteko aldi baterako lan-kontratudunek betetzen dituzten lanpostuak plantillakoak diren ala ez diren.

Gure gomendioak:

- *Langileek jasotako ordainsariak egokitzea araudi indardunean ezarritakoetara, eta saihestea ordainsari gehigarriak ordain daitezen hartan jasota ez dauden kontzeptuengatik. Horretarako, lan-egutegiaren kudeaketa egokia egin beharra dago, une bakoitzean dauden langile-beharrak aintzat hartuz, edo kanpoko zerbitzuak kontratatu beharizan puntual horiek estaltzeko; halaber, azter daiteke ea pizgarri hori legedi indardunean aurreikusitako osagarrietako bat bihurtu ote daitekeen.*

- *Plantilla organikoko antzinatasun datak gaurkotzea eta informatzea aldi baterako lan-kontratudunek betetzen dituzten lanpostuak plantillakoak diren ala ez diren.*

- *Aldi baterako langileen egoera erregularizatzea, eta lanpostu hutsen deialdia egitea, egungo araudiaren testuinguruan.*

## IV.5. UDALAREN ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUA

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak 1,5 milioikoak izan ziren; betetze-maila aurreikusitako kredituaren ehuneko 90ekoa izan da, eta ekitaldiko guztizko gastuaren ehuneko 32 egiten du. 2015. urtearen aldean, zenbatekoak ehuneko bi egin du gora.

Honako hauek izan dira kapitulu honetan egotzitako gastu nagusiak eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

Ondasun arruntak eta zerbitzuak	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2015	2016	
Hornidurak	348.256	370.016	6
Udal eraikinen garbiketa	181.371	202.114	11
Herriko jaiak eta gazteen asteburua	178.459	159.034	-11
Gaztediaren etxearen kudeaketa (Luyber zentroa)	73.459	73.459	0
Beste gastu batzuk	651.350	661.860	2
<b>2. kapitulua, guztira</b>	<b>1.432.895</b>	<b>1.466.483</b>	<b>2</b>

2016an, honako kontratu hauek adjudikatu ziren –haien gastuak kapitulu honetan sartzen dira–:

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Eskaintzaileen kopurua	Esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Gastua 2016an (BEZik gabe)
Herriko jaietako musika ikuskizunak eta haurrentzako ikuskizunak	Laguntza	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	33.700	3	33.480	33.700
Herriko jaietako ikuskizun piro-teknikoak	Laguntza	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	12.000	3	10.163	10.163
Zezen plazaren kudeaketa herriko jaietan	Zerbitzuak	Publizitaterik gabe negoziatua	11.500	3	8.000	8.000
Argiaren hornidura	Hornidura	Zuzeneko esleipena	Ez da aplikagarria	Ez da aplikagarria	Ez da aplikagarria	170.081
Kirol-instalazioen multzoaren kudeaketa	Zerbitzuak/errentamenduak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	Gutxieneko kanonaren diru-sarrera, urtean 500 euro	1	Kanon finkoaren diru-sarrera, urtean 1000 euro	-

Herriko gaietako musika ikuskizunen, haurrentzako ikuskizunen eta ikuskizun piroteknikoen kontratuak berrikusi ditugu. Halaber, gaztediaren etxearen kudeaketatik heldutako gastua –73.459 euro– eta ikastetxe publikoaren garbiketarik heldutakoa –115.604 euro– aztertu ditugu. Kirol-instalazioen multzoaren kudeaketarako kontratua transferentzietan buruzko hurrengo apartatuan aztertu dugu.

Ondorioa da gastu horiek behar bezala baimenduta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta, oro har, aplikatzekoa den araudia errespetatu dela. Hala eta guztiz ere, honako alderdi hauek ikusi ditugu:

- 2016an, zuzeneko esleipenaren bidez, orain arte enpresa batekin eduki den elektrizitate-hornidurarako kontratua berriro da, kontratazio-prozedurarik egin gabe. Aurreikusitako balio zenbatetsiaren arabera, Kontratuari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak prozedura irekita erabiltzea aurreikusten du.

- Muntako zenbatekoa duten honako zerbitzu hauek detektatu dira, kontraturik ez dutenak:

Deskribapena	Gastuaren zenbatekoa 2016an (BEZa kenduta)
Argiteria publikoaren eta udal erakinen mantentzea	53.067
Aseguruak	37.109 (*)
Gasolioaren hornidura	36.824
Hirigintzako aholkularitza	26.400
Eguneko jantokiaren kudeaketa	19.968
Hilerriaren mantentzea	13.225 (*)
Zezen-jaietarako anbulantzia	11.910
Nominak eta gizarte aseguruak egitea	10.580
Soinu- eta argi-ekipamenduak instalatzea	9.300
Zinetokirako filmak alokatzea	6.875
Ekipamendu informatikoak mantentzea	6.232

(\*) Kontratazio-prozedura 2017an izapidetu da

Gai horri buruz, Kontu-hartzaitzaren txosten orokor bat badago, kontratazio-gaiari buruzkoa, 2016ko abenduaren 27an egina. Hartan, errepikakorrak izategatik eta beren zenbatekoarengatik –lau urterako zenbatetsitako balioa– kontratazio-prozedura egokiaren bitartez formalizatu beharko liritekeen prestazioak zehazten dira. Gastu horien guztizko zenbatekoa 231.490 eurokoa da, eta kapituluaren guztizkoaren ehuneko 16 egiten du. Gai hori dela eta, salbuespen bat ageri da betetzeari buruzko fiskalizazio txostenean.

Zerbitzu horiengatik ordainketa-prozesua egin izan da ordainketetarako zerrenda arruntetan sartzeaz beste izapiderik egin gabe. Gure ustez, espediente bat izapidetu beharko litzateke, eta hartan, kontratuko irregulartasuna aitortuta, hura ordaindu beharko litzateke, Udalaren aberaste bidegabea saihesteko, baldin eta ez baditu ordaintzen egiazki eginda dauden baina lege-eguskarriak ez duten gastu batzuk.

*Gomendatzen dugu behar diren kontratazio-espeditenteak izapidetzea errepikakorrak izategatik eta beren zenbatekoarengatik araudiaren arabera hala jokatu behar den zerbitzuen kasuan.*

#### IV.6. UDALAREN TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK

Izaera horretako gastuek 429.170 euro egin dute 2016an, eta ehuneko 95eko betetze-maila izan dute. Guztizko gastuaren ehuneko bederatzi dira. Gastu horiek ehuneko bost handitu dira 2015ekoekin alderatuta.

Honako hauek dira 2016ko gastuaren xehetasunak eta 2015ekoekiko alderaketa:

Transferentzien ondoriozko gastuak	Aitortutako betebeharrak		Ehuneko Aldea
	2015	2016	
Mankomunitateei	144.515	143.799	-1
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	124.472	143.930	16
Toki entitatearen erakunde autonomoei	78.022	87.441	12
Enpresa esleipen-hartzaileari: kirol-instalazioen multzoaren kudeaketa	50.000	50.000	0
Beste enpresa pribatu batzuei	4.000	4.000	0
Beste transferentzia batzuk	8.516	0	-100
<b>4. kapitulua, guztira</b>	<b>409.525</b>	<b>429.170</b>	<b>5</b>

Transferentzia nagusiak zerbitzu mankomunatuak eta irabazi asmorik gabeko entitate batzuk finantzatzeko erabili dira. Bi kontzeptu horien baturak kapituluako gastuaren ehuneko 67 egiten du.

Zerbitzu mankomunatueterako transferentziaz gainera, honako hauek berrikusi dira berrikusi dira: El Tajador gazteen elkarteari emandako diru-laguntzak –30.000 euro herrian pop-rock musikako jaialdi bat antolatzeke–, Lacho Drom elkarteari emandakoak –17.000 euro–, kultur jardueretarako diru-laguntzak (musika banda, erraldioen konpartsa, gaiteroak eta abar) –36.195 euro–, eta kirol-instalazioen multzoa kudeatzen duen enpresaren aldeko esleipen-prozedura eta hari egindako transferentziak.

Berrikuspen horiek eginda, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, diru-laguntzak aplikatzekoa den araudiaren arabera eman eta erregistratu direla.

Hala eta guztiz ere, kirol-instalazioen multzoaren kudeaketa dela-eta honako alderdi hauek nabarmenduko ditugu:

- Kirol-instalazioen multzoaren kudeaketaren esleipena 2011ko ekainean egin zen, bost urterako, eta urtean 1.000e uroko errentamendu-kanon finkoa ezarri zen. 2013. urtean, kontratu-aldaketa bat sinatu zen, urtean 50.000 euroko gehieneko zenbateko bat jasotzeko, Udalak enpresa esleipen-hartzaileari ordainduko ziona, instalazioaren oreka finantzarioaren balizko hausturari aurre egin ahal izateko. Kontratu-aldaketa horren arabera eta enpresa esleipen-hartzaileak 2015eko ekitaldiko ustiaketan izandako galeren justifikazioarekin, Udalak 2016an 50.000 euroko ekarpena egin du. Zenbateko hori transferentzia arruntei egozten zaie.

- Aurreko kontratuaren iraupena 2016ko ekainean amaitu zen. Europar Batasuneko atalasetik beheitiko kontratazio-prozedura bat egin ondoren, enpresa berari esleitu zaio berriz ere kontrata; hartara aurkeztu den lizitatzailerak bakarra da. Kontratazio-prozedura hori berrikusi dugu, eta emaitza da araudi indardunaren arabera izan dela. Kontratu berriaren finantza-baldintzak aurrekoaren berdin-berdinak dira: urtean 1.000 euroko kanon finkoa eta Udalaren urtean 50.000 eurorainoko ekarpena, finantza-orekari eusteko.

#### IV.7. UDALAREN INBERTSIOAK

Inbertsioengatiko gastuak 392.416 eurokoak izan dira, eta betetze-maila ehuneko 90ekoa izan da. 2015arekin alderatuta, ehuneko 51 egin dute behera.

Honako hauek izan dira gastu nagusiak:

Inbertsio errealak	Inbertsioak, 2016
Lursailen desjabetzeak	250.000
Zenbait kaletan egindako jarduketak	29.224
Liburutegia eta polizia-etxea	13.784
Kultur etxea	13.712
Ikastetxea	13.130
Atletismo pista	11.111
Gainerako inbertsioak	61.455
<b>6. kapitulua, guztira</b>	<b>0</b>

2016an, desjabetzeak alde batera utzita, inbertsio-jarduketa guztiak 30.000 eurotik beherakoak dira, eta zuzenean esleitu dira. 2016arekin alderatuta, beherakada handi bat gertatu da airtortutako betebeharreran. Horren justifikazioa da, batetik, aurreko ekitaldian uholde batzuek herriaren zati handi bat kaltetu zutela eta azpiegituren konponketan gastu handiak eragin zituztela; bestetik, 2015ean, liburutegia eta udaltzaingoaren egoitza hartzeko eraiki berri bat ekipatu zen, eta obra batzuk egin ziren musika eskolarako eraikina egokitzeko.

Desjabetzeen arloko gastua dela eta, 2002an, kirol-instalazioen multzo berriaren eraikuntza-proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen gaineko prozesu hori hasi zen; hala eta guztiz ere, batez ere lursail horiek urak har ditzakeen toki batean daudenez, kirol-azpiegitura hori azkenean beste toki batean eraiki zen. Udalaren zailtasun ekonomikoak tarteko, jabeekin hitzartu zen des-

jabetze horien ordainketa geroratua egitea, diruaren legezko interesak sortuz. Ordainketa Udalak eginen luke bere finantzetatik erabili dezakeenaren arabera, gastuaren aurrekontu-aitorpena Udalaren Osoko Bilkurak ordaindu beharreko zenbatekoa onesten duen ekitaldian eginen da.

Aurreko desjabetzeak 1.339.655 euroko gastua eragin dio guztira Udalari: 963.666 euro printzipalari dagozkio eta 375.989 euro, berriz, interesei.

2016an, 250.000 euroko gastua aitortu da; diru horretatik, 233.756 euro printzipalari dagozkio eta, gainerakoa, berriz, sortutako interesei. 2016ko abenduaren 31n, 43.168 euro oraindik ere aitortzeko daude. Zenbateko hori, azkenean, 2017an ordaindu da.

Desjabetutako lursail guztiak eskuratzeko eta Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko daude. Aurreikusi da izapide horiek eginen direla ordainketa amaitzen denean, eta ez dago udalaren aurreikuspenik horien balizko zertarakoari edo xedeari buruz.

Gainera, kapitulu honetako gastuen lagin bat berrikusi da, 66.159 eurokoa, eta egiaztatu da haiek behar bezala baimenduta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta, oro har, aplikatzeko den araudia errespetatu dela. Ekitaldiko inbertsio erreal gisa kontabilizatu da TRACASAK egindako udal inbentarioaren garapenaren kostua, 6.000 eurokoa (BEZik gabe).

#### IV.8. UDALAREN AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK.

2016ko ekitaldiko kapitulu bakoitzarengatik aitortutako eskubideak eta haien eta aurreko ekitaldiko arteko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Ehuneko Aldea
	2015	2016	
1. Zuzeneko zergak	1.941.863	1.947.346	0
2. Zeharkako zergak	186.730	358.822	92
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	571.305	551.239	-4
4. Transferentzia arruntak	2.164.443	2.150.393	-1
5. Ondare diru-sarrerak	45.036	43.937	-2
<b>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</b>	<b>4.909.377</b>	<b>5.051.737</b>	<b>3</b>
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0
7. Kapital transferentziak	86.949	16.975	-80
<b>Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)</b>	<b>86.949</b>	<b>16.975</b>	<b>-80</b>
8. Finantza-aktiboak	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0
<b>Finantza-eragiketengatik diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>4.996.326</b>	<b>5.068.712</b>	<b>1</b>

2016ko ekitaldian aitortutako eskubideak 5,07 milioiokoak izan dira; horietatik, 5,05 milioi diru-sarrera arruntei dagozkie eta 16.975 euro, berriz, kapital-transferentziei. Diru-sarreraren aurrekontua betetzeko maila ehuneko 100ekoa izan da. Aitortutako diru-sarrerak aurrekontuetan jasotakoak baino txikiagoak izan dira kapitulu guztietan –zeharkako zergen eta transferentzien kapituluetan izan ezik–.

2015. urtearen aldean, diru-sarrerak ehuneko bat egin du gora. Igoera horren azalpena da EIOZa dela eta eskubide gehiago aitortu direla, transferentzien bidez lortutako diru-sarrera txikiagoekin konpensatuak.

2015eko eta 2016ko ekitaldietan, Udalak ez du diru-sarrera garrantzitsurik jaso hirigintza-eragiketengatik, eta ez du zorpetze finantzario berririk itundu.

Diru-sarreraren aurrekontuaren partiden lagin baten ganean azterketa egin ondoren –funtsean, tokiko zergak, udal zaintzarengatik kuotak, eguneko jantokiko diru-sarrerak eta lur-zatien errentamendua– egiaztatu dugu, oro har, egoki izapidetu, justifikatu eta kontabilizatu direla.

- a) Zergen bidezko diru-sarrerak

Hurrengo taulan udal zerga bakoitzeko aitortu diren eskubideen konparazioa erakusten dugu:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Ehunekoak Aldea
	2015	2016	
Lurraren kontribuzioa	1.156.160	1.156.580	0
Ibilgailuak	391.313	395.598	1
Lurren balio-gehikuntza	92.776	100.584	8
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	301.614	294.584	-2
EIOZa	186.730	358.822	92
<b>Guztira</b>	<b>2.128.593</b>	<b>2.306.168</b>	<b>8</b>

Gainbalioen gaineko zergen igoeretan alde nabarmenak aurkitzen dira, zeren eta higiezinaren transmisioak handitu baitira, eta EIOZa bereziki, obrak egiteko eskarien espediente gehiago egon baitira.

2016an, Udalak honako tasa hauek aplikatu ditu:

Zergak	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,2288	0,10 -0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
EIOZa	4,6	2 - 5
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga		
Gaurkotzearen koefizientea	2,5 eta 3,3 bitarte	2,1 eta 3,6 bitarte
Zerga-tasa	13	8 eta 20 bitarte

Tasa horiek 2015eko tasen antzekoak dira.

Balorazio ponentziaren azken gaurkotzea 2011ko azaroan egin zen.

2017an ez da lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga kudeatzen ari, haren legezkotasunari buruz dagoen zalantza dela-eta eta haren araupetzean aldaketak egingo direlakoan.

b) Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Ondoren 2016ko eta 2015eko tasen, prezioen eta beste diru-sarrera batzuen bitarteko diru-sarreraren alderaketa bat erakusten dugu.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubideak		Ehunekoak Aldea
	2015	2016	
Hurtzaindegiko kuotak	155.658	140.499	-10
Enpresa elektrikoaren eta telefonikoaren kanona	100.767	96.272	-4
Aparkalekuetako pasabideak	65.353	65.763	1
Gasbideen tasak	43.630	39.329	-10
Isunak	29.716	27.619	-7
Eguneko jantokietako diru-sarrerak	23.002	26.602	16
Kulturaren sustapena eta zabalkundea	19.680	23.890	21
Bide publikoaren okupazioa	17.402	22.560	30
Bestelako diru-sarrerak eta itzulketak	7.414	19.643	165
Hirigintzaren arloko kudeaketaren sarrerak	15.197	0	-100
Besterik	93.486	89.062	-5
<b>3. kapitulua, guztira</b>	<b>571.305</b>	<b>551.239</b>	<b>-4</b>

Kapitulua aldaketa, 2015eko ekitaldiaren aldean, nagusiki azaltzen da hurtzaindegiko erabiltzaileen kopuruak behera egin duelako 2016ko laugarren hiruhilekoan, eta 2015ean 15.197 euroko diru-sarrera bat aitortu delako, aurreko urteetako hirigintza-proiektuak eta obretarako proiektuak direla eta.

c) Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua.

Hurrengo taulan, 2016an kapitulu honetan 2015arekiko izan den bilakaera erakusten dugu:

Ondare bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Aldearen ehunekoa
	2015	2016	
Lur-zatien banaketa/errentamendua	30.079	30.653	2
Udal hilerriko errentamenduak	12.000	10.150	-15
E.S.C.aren tabernaren alokairua	2.160	2.160	0
Herri-lurretan sartzearen kanona	539	764	42
Banketxeetako kontuen korrituak	258	209	-19
<b>5. kapitulua, guztira</b>	<b>45.036</b>	<b>43.936</b>	<b>-2</b>

Diru-sarrera hauen kontzeptu nagusia herri-lurretako lur-zatien errentamendutik datorrena da; horiek, izan ere, zuzenean esleitu izan zaizkie eskatu dituztenei. Herri-lurretako lur-zatiak arautzen dituen ordenantza 1996koa da, eta ikusten da lur-zati horiek, haien esleipen-hartzaileak eta errentamendu-epreak direla-eta kontrol falta dagoela.

*Gomendatzen dugu diseinatzea eta sistematikoki aplikatzea prozedura batzuk herri-lurretako lur-zatien errentamendua kontrolatu ahal izateko, bai eta haiek arautzen dituen ordenantza berrikustea ere, egungo koiunturari egokitzeko.*

d) Transferentzien bidezko diru-sarrerak

Ondoren 2016an eta 2015ean transferentzien bidez lortutako diru-sareren alderaketa bat erakusten dugu:

Transferentzien bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak		Ehunekoa Aldea
	2015	2016	
Toki ogasunetan parte hartzeko funtsa	1.501.237	1.529.760	2
Haur eskolak	311.428	313.618	1
Funtzionarioen montepioak	168.923	156.859	-7
Udalbatzako kideen ordainsariak:	52.768	53.771	2
Kultura eta arte jarduerak	19.032	26.541	39
Gaztediarentzako programa garatzea	0	12.623	-
Beste diru-laguntza batzuk	12.923	11.161	-14
<i>Nafarroako Gobernuarenak, atal honetan, guztira</i>	<i>2.066.311</i>	<i>2.104.333</i>	<i>2</i>
Laneratzea eta gizarteratzea (Nafarroako Enplegu Zerbitzua)	41.139	9.597	-77
Pilotalekurako lankidetzak-hitzarmena (EGA BHla)	24.914	24.914	0
Beste toki entitate batzuk (nabe baten errentamendua)	4.052	4.048	0
Aseguru-enpresetatik berreskuratutako ezbeharrak	28.027	7.500	-73
<i>Honaino, guztira - Beste hainbat diru-laguntza</i>	<i>98.132</i>	<i>46.059</i>	<i>-53</i>
<b>4. kapitulua, transferentzia arruntak, guztira</b>	<b>2.107.450</b>	<b>2.113.930</b>	<b>-1</b>
Nafarroako Gobernua	74.766	16.975	-77
Hirigintza-aprobetxamenduak	12.183	0	0
<b>7 kapitulua, kapital-transferentziak, guztira</b>	<b>32.079</b>	<b>11.548</b>	<b>-80</b>

Transferentzia arruntan aldea honako honekin justifikatzen da: a) toki ogasunen funtsari egingandako ekarpenaren handitzea eta diru-laguntzak jasotzea gaztedia eta arte eszenikoak eta kultura programa finantzatzeko; b) gizarteratzerako eta laneraterako laguntzak eta aseguru-enpresetatik berreskuratutako ezbeharren zenbatekoak gutxitzea.

Kapitaleko transferentziak inbertsio errealak bezala gutxitu dira. Gainera, 2016an, 7.618 euroko diru-laguntza bat jaso da, titulartasun publikoko nekazaritza azpiegiturak konpontzeko obrek in lotutakoa, 2015ean gertatutako uholdeen ondorioz egindakoak; ez zegoen aurreikusita haiek jasotzea.

e) Itxitako ekitaldietako diru-sarrerak.

Hurrengo taulan laburpen bat erakusten dugu 2016an egindako kobrantzei eta 2016ko abenduaren 31n itxitako ekitaldietako diru-sarreretatik kobratzeko dauden saldoei buruz:

Urtea	Hasierako saldoa 2016-01-01	Kobrantzak 2016	Kaudimen ga-beziak eta beste baja batzuk	Amaierako saldoa 2016-12-31	Amaierako saldoaren gaineko %	Hasierako saldoaren gaineko kobrantzen %
2015	336.466	227.795	-230	108.441	13	68
2014	92.843	15.600	-9	77.234	10	17
2013	108.993	7.766	-53	101.174	12	7
2012	88.367	3.651	-52	84.664	10	4
2011	73.063	2.322	-50	70.691	9	3
2010	59.216	1.682	0	57.534	7	3
2009a eta aurrekoak	325.517	8.315	0	317.202	39	3
<b>Guztira</b>	<b>1.084.465</b>	<b>267.131</b>	<b>-394</b>	<b>816.940</b>	<b>100,00</b>	<b>25</b>

Hona hemen itxitako ekitaldietatik kobratzeko dauden saldoen xehetasunak, diru-bilketako kontzeptuaren arabera:

Itxitako ekitaldietako aurrekontuak-Diru-sarrerak	Zenbatekoa	Guzt. gain. %
Lurraren kontribuzioa	198.039	24
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	116.486	14
Lurren balio igoeraren gaineko zerga.	58.103	7
Ibilgailuen gaineko zerga	208.593	26
EIOZa	55.647	7
Ur-hornidura	56.993	7
Estolderia.	15.826	2
Bide publikoaren okupazioa	57.429	7
Hurtzaindegiaren kuota	8.499	1
Lur-zatien banaketa	7.347	1
Ibiak: Ibilg. sarrera	5.997	1
Gainerakoa	27.981	3
<b>Guztira 2016-12-31n</b>	<b>816.940</b>	<b>100</b>

Gure gomendioak:

- *Aurreko saldoak berrikustea, kobrantza-eskubideak islatzen dituzten aztertze aldera.*
- *Ikerketa- eta ikuskatze-tresnak indartzea, kobratzen kudeaketa errazte aldera.*



## IV.9. MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolaren aurrekontuaren betetzearen egoera-orria, 2016ko ekitaldiari buruzkoa, honako taula honetan ageri dena da:

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako kreditua	Aldaketa	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehuneko	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	180.500	-1.612	178.888	178.888	100	175.083	98	3.805
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	6.220	-1.167	5.053	4.993	99	4.713	94	280
4. Transferentzia arruntak	250		250	250	100	250	100	0
5. Kontingenzietarako eta ezusteetarako funtsa	5.000		5.000	0	0	0		0
6. Inbertsio errealak	3.500		3.500	3.460	99	2.590	75	870
8. Finantza-aktiboak	0	2.779	2.779		0	0		0
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>195.470</b>	<b>0</b>	<b>195.470</b>	<b>187.591</b>	<b>96</b>	<b>182.636</b>	<b>97</b>	<b>4.955</b>

## Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobrantsak (%)	Kobrantszeko dagoena
3. Tasak, prezioak eta beste-lako diru-sarrerak	75.732	0	75.732	75.696	100	75.155	99	541
4. Transferentzia arruntak	119.738	0	119.738	111.895	93	99.668	89	12.227
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>195.470</b>	<b>0</b>	<b>195.470</b>	<b>187.591</b>	<b>96</b>	<b>174.823</b>	<b>93</b>	<b>12.768</b>

Gastuen eta diru-sarreraren hasierako aurrekontua 0,19 milioi eurokoa da. Ez da guztizko bolu-mena handitzen duen aurrekontu aldaketarik egin. Aitortutako betebeharrak eta eskubideak 0,18 milioi eurokoak dira, ehuneko 96ko betetze-mailarekin bi kasuetan.

2015arekin alderatuta, Eskolaren gastuak eta diru-sarrerak ehuneko hiru handitu dira, hurrengo taulan ikusten den bezala.

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera	Aitortutako betebeharrak		Ehuneko Aldea
	2015	2016	
1. Langile-gastuak	174.926	178.888	2
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	5.747	4.993	-13
4. Transferentzia arruntak	250	250	0
6. Inbertsio errealak	992	3.460	249
<b>Guztira</b>	<b>181.916</b>	<b>187.591</b>	<b>3</b>

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera	Aitortutako eskubideak		Ehuneko Aldea
	2015	2016	
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	75.584	75.696	0
4. Transferentzia arruntak	106.332	111.895	5
<b>Guztira</b>	<b>181.916</b>	<b>187.591</b>	<b>3</b>

Egin dugun lanetik honako hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Gastuaren ehuneko 95 langileei dagokie; 2015eko zenbatekoaren aldean, ehuneko bi handitu da.

Igoera horren arrazoia da 2016an langile gehienak urte horretako irailaren bigarren hamabostaldian kontratatu direla; 2015ean, ordea, kontratuak urriaren 1ean hasi ziren. 2016-17 ikasturtean, kontratu guztiak 12 hilabetekoak dira, 2016ko urriaren 1etik 2017ko irailaren 30era.

Udalaren Musika Eskolaren Patronatua erakunde autonomoaren 2016ko plantilla organikoan 15 lanpostu daude, guztiak ere “aldi baterako lan-kontratudun langileak” araubide juridikoaren pean.

Langileak	Lanpostuen kopurua
Zuzendaria/irakaslea	1
A mailako irakaslea	9
B mailako irakaslea	5
<b>Guztira</b>	<b>15</b>

Plantillarekin batera ageri den langileen zerrendaren arabera, lanpostu guztiak hutsik daude eta arduraldi partziala dute, salbu eta zuzendariarena, zeinak arduraldi osoa baitu.

Ez dago jasota langileen espedienterik dagoenik; kasuan kasuko kontratuak baino ez daude.

Normalean kontratuak urtero pertsona berekin egiten dira, eta ordezkapenak egiteko beste norbait kontratatu behar denean, zuzendaria da hautapen horretaz arduratzen dena.

Langileen gastuen aurrekontuko partiden lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu ezen, oro har, egoki izapidetu, justifikatu eta kontabilizatu direla.

- Diru-sarreretatik, ehuneko 40 erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifetatik datoz eta ehuneko 60, berriz, transferentzietatik; azken horiek udaletik –87.441 euro– eta Nafarroako Gobernutik –24.454 euro– datoz.

Erabiltzaileen kuoten bidezko diru-sarrerak ez du ia aldaketarik izan aurreko ekitaldikoarekin alderatuta. 2016-17 ikasturtean aplikatutako tarifak aurreko ikasturteko tarifen antzekoak dira. Ikasleen kopurua 2016ko ekitaldi horretan txikiagoa bada ere (176 ikasle; lehen 181), inguruabar hori konpentsatu da ikasleek eskatutako zerbitzuetan izandako aldaketekin; esate baterako, musika-tresnekin ordu gehiago egitea, mailaz aldatzea, eta abar.

Erabiltzaileen kuoten bidezko diru-sarrera horien lagin baten gainean egindako azterketan, egiaztatu dugu ezen, oro har, haien izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizatzea zuzenak izan direla.

Udalak emandako diru-laguntza Eskolaren gastuak finantzatzeko erabiltzen da, bertako gastuen eta diru-sarreraren arteko orekari eustea bideratzen duen zenbatekora arte.

Kobratzeko gelditzen dira Eskolako 2011ko eta aurreko urteetako ikasleen kuotak, 1.833 euro egiten dutenak. Nekez kobratuko direla jotzen da.

Gure gomendioak:

- *Araudiaren egungo testuinguruan, aldi baterako langileen egoera erregularizatzea eta plantillako lanpostu hutsetarako deialdia egitea.*

- *Lan-harremanari eusteko dokumentazio administratibo guztia bilduko duten langile-espedienteak egitea.*

- *Aurreko urreetatik kobratzeko dauden saldoak berrikustea, kobrantza-eskubideak islatzen dituzten aztertze aldera.*

#### IV.10. RADIO SAN ADRIÁN

Udalak, bere garaian, Radio San Adrián erakunde autonomoa sortu zuen. Gaur egun, ez du aurrekontu-zuzkidurarik, eta ez du inongo jarduerarik egiten.

Irrati emisioak Udalaren lokaletan egiten ditu elkarte pribatu bati; elkarte horri "laga" zitzaion Industria Ministeriorik lortutako lizentzia. Ezin da jo irrati-emisio horiek Udalak ematen duen zerbitzu publiko bat direnik, eta arau indardunaren arabera (abenduaren 21eko 431/1992 Foru Dekretua, udal titulartasuneko emisoreen bidezko frekuentzia modulatu uhin metrikoen soinuzko irrati-difusioko zerbitzu publikoa eskaintzeko kontzesio administratiboen araubidea zehazten duena), emakidaren ustiatzea Udalaren, erakunde autonomoaren edo udal sozietatearen zuzeneko kudeaketaren bidez egin beharra dago. Hori dela eta, egungo egoera "*legez kanpoko*" dela jo daiteke. Halaber, Udalak ez du irrati-difusioko jarduera kontrolatzen; hori dela, eta, kasua bada, emakidaren erabilera pribatutik heldutako erantzukizunak izan ditzake.

Gure gomendioak:

- *Erakunde autonomoa desegitea, ez baitu inongo jarduerarik.*
- *Udalak, irrati-difusioko lizentzia baten titularra den aldetik, kasua bada, haren kudeaketa bere gain hartu behar du edo gogoeta egin behar du administrazio-emakida hori baliogabetzeari edo hari uko egiteari buruz.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2017ko abenduaren 14an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

